

Juan Jose Arginzonizek 1783ko *Diccionario de la Lengua Castellana*-ren dohaintza egin dio Euskaltzaindiari

Juan Jose Arginzoniz Berrizko euskaltzaleak 1783ko *Diccionario de la Lengua Castellana* liburuaren dohaintza egin dio Euskaltzaindiari. Azaroaren 29an, Berrizko Udaletxean, Arginzonizek eta Jose Luis Lizundia Euskaltzaindiaren diruzainak hitzarmena sinatu zuten, eta dohaintza formalizatu. Izan ere, ekitaldi honetan, Jose Luis Lizundia izan zen Akademiaren ordezkaria. Harekin batera, Pruden Gartzia Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako zuzendaria izan zen.

Diccionario de la Lengua Castellana Espainiako Erret Akademiaren hiztegiaren bigarren edizioa da, 1783koa. Horrek, berez, garrantzia ematen dio dohaintzari, batetik antzinako liburu delako, eta bestetik, Euskaltzaindia bezalako Akademia batek egindako hiztegia delako. Hiztegi honek, guztira, 22 edizio izan ditu, azkena 2001koa; lehengo 14 edizioetan izenburu hori izan zuen –hots, *Diccionario de la Lengua Castellana*– eta 15. edizioan, 1925ean kaleratu zena, izenburua aldatu zioten, *Diccionario de la Lengua Española* bihurtuz. Hurrengo edizioa 2013an argitaratuko da.